

SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA

2. BALOREZKO PROPOSAMENA:

Pandemia dela eta, hainbat gizarte arazo berri sortu dira:

- Mascarilla denok eramaten dugula egiaztatzeko beharra
- Estatuak ezarri dituen ordutegiak betetzen direla kontrolatzea
- Aglomerazioak eta taldeen elkarketa ekiditea
- Eremu publikoetan osasuna bermatzeko Estatuak ezarri dituen gainontzeko neurriak betetzen diren ala ez konprobatzea

Arazo hauen aurrean jendeak duen jarrera nahiko desagokoa da; hau da, pertsona askok ez dituzte behar denean musukoak janzen, ez dute segurtasun distantzia mantentzen, gazteak talde handietan elkartzten dira boteioiak edo delakoak egiteko eta gaur egungo gizarteak osasun arloan segurtasun handia behar du. Hala ere, etorkizunean ere baliagarria izango den produktua da, hau da, pandemia amaitzerakoan erabilgarria izango da ere, gizartearen segurtasuna bermatzeko. Egoera hauek kontrolatzea oso zaila denez, VENUS SECURITY kamera aurkezten dizuegu. Kamera kamuflatu hauen funtzioa jendearen segurtasuna bermatzea da. Hori lortzeko, hegan egiteko eta kokapenaren arabera bere itxura egokitze zenbait funtzio barneratu ditugu. Beste kamereekin konparatuta, gurea, eszenatoki ezberdinetara moldatzen da, bezeroari segurtasun hobea eskainiz.

Bestalde, etorkizunera begiratuta, kamera hauek bestelako zenbait arazoei aurre egiteko balioko dute, hala nola, bortxaketak, lapurretak, borrokak, zirkulazio arazoak eta bestelako infrakzioak.

Produktu hori sortzeko, kontuan hartu da gizarte erantzunkizun (GEK) korporatiboa; izan ere, hura paketatzeko, ahal den neurrian, material biodegradagarriak eta birziklatuak erabiliko dira; izan ere, gure ustez, garrantzitsua da, herritarren segurtasuna zaintzeaz gain, ingurumenari ez eragitea.